



ERAKUSKETA

80ko HAMARKADA EUSKAL HERRIAN

POLITIKA, GIZARTEA, KULTURA

Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren dokumentazio gunean (Lazkao) urteak daramatzagu Euskal Herriko historia garaikidearekin erlazionatutako aldizkariak, kartelak, pegatinak, esku-orriak e.a. biltzen. Gal ez daitezen, etorkizunera begira horien kontserbazioa berma dadin, eta gaur egungo nahiz etorkizuneko ikertzaileek, hemengoek nahiz kanpokoek, eskura izan ditzaten.

Azken urteetan ahalegin berezia egiten ari gara gure funtsak ezagutzera emateko, gizarteak izan dezan gure zentroan gordetzen ditugun *altxorren* berri, eta horri benetako probetxua atera diezaion. Hori da, hain zuzen ere, antolatu dugun *80ko hamarkada Euskal Herrian: politika, gizartea, kultura* erakusketaren helburua.

Erakusketa azaroaren 17tik abenduaren 2ra egon da zabalik Lazkaoko Kultur Etxeko erakusketa aretoan. Bertan 80ko hamarkadako euskal politika, gizartea eta kulturaren nondik norakoak azaldu ditugu: gure lurraldearen erakundetzea, gatazka politikoa, krisi ekonomikoa eta langileen borroka, gizarte mugimenduen presentzia (feminismoa, antimilitarismoa, mugimendu ekologista...), euskararen alde egindako lana eta garaiko mugimendu alternatiboak, besteak beste. 80ko hamarkadaren ikuspegi orokor bat eman nahi izan dugu, eta era berean, gure zentroan zer nolako ondare dokumentala daukagun erakutsi. Izan ere, erakusgai jarri ditugun funts guztiak Lazkaoko Beneditarren Fundazioan daude gordeta: paretetan jarri ditugun 30 kartelak eta bitrinetan jarritako 200etik gora dokumentuak (pegatinak, aldizkariak, panfletoak, esku-egutegiak e.a.).



LAZKAOKO
BENEDITARREN
FUNDAZIOA
DOKUMENTAZIO GUNEA

80ko hamarkada Euskal Herrian: politika, gizartea, kultura

Erakusketa hori bera –lekuan lekuko erakusketa gelei egokituta– herriz-herri mugituko dugu 2017an. Momentuz, Beasainen egongo da ikusgai otsailaren 9tik 19ra, Legazpin martxoaren 17tik 31ra bitartean, eta Erreterian apirilaren 4tik aurrera.



EGITURAK

(Lazkaon egindako erakusketan erabili ditugunak)

- Dokumentazioa: 200etik gora dokumentu.
 - 6 bitrina (100 x 100 cm)
 - 4 bitrina (50 x 50 cm)
- Kartelak: 30 kartel, markoetan sartuta, paretetan zintzilikatzeko
- Panelak:
 - Kronologia (180 x 90 cm)
 - Azalpenak Politika/gizartea (150 x 90 cm)
 - Azalpenak Kultura (150 x 90 cm)


Erabilitako egiturak egokitu egingo genituzke, gelaren arabera.



LAZKAOKO
BENEDITARREN
FUNDAZIOA
DOKUMENTAZIO GUNEA

80ko hamarkada Euskal Herrian: politika, gizartea, kultura

ERAKUSKETAREN IRUDIAK



Lazkaoko erakusketarako kartela

Elosegi 27, 20210 Lazkao (Gipuzkoa) / T 943 888 781 / lbf@lbf.eus / www.lbf.eus



LAZKAOKO
BENEDITARREN
FUNDAZIOA
DOKUMENTAZIO GUNEA

80ko hamarkada Euskal Herrian: politika, gizartea, kultura



LAZKAOKO
BENEDITARREN
FUNDAZIOA
DOKUMENTAZIO GUNEA

80ko hamarkada Euskal Herrian: politika, gizartea, kultura





LAZKAOKO
BENEDITARREN
FUNDAZIOA
DOKUMENTAZIO GUNEA

80ko hamarkada Euskal Herrian: politika, gizartea, kultura



Elosegi 27, 20210 Lazkao (Gipuzkoa) / T 943 888 781 / lbf@lbf.eus / www.lbf.eus



LAZKAOKO
BENEDITARREN
FUNDAZIOA
DOKUMENTAZIO GUNEA

80ko hamarkada Euskal Herrian: politika, gizartea, kultura





LAZKAOKO
BENEDITARREN
FUNDAZIOA
DOKUMENTAZIO GUNEA

80ko hamarkada Euskal Herrian: politika, gizartea, kultura







LAZKAOKO BENEDITARREN FUNDAZIOA

I. AURREKARIAK

Lazkaoko Beneditarren Fundazioa (LBF) 2011n sortu zen, Juan Jose Agirre monje beneditarrak urtetan liburu eta dokumentazio bilketaren inguruan egindako lanari babesa eta segida emateko. Ibilbide luzea dago fundazioaren atzetik, 1973an hartu baitzuen Agirrek Lazkaoko Beneditarren monasterioko biblioteka zuzentzeko ardura. Biblioteka zuzendu bakarrik ez, gerora Euskal Biblioteka deituko zenaren oinarriak ere jarri zituen, monasterioan aurkitu zituen liburu eta aldizkariekin eta gerora bilduko zituenekin. Handik gutxira, gainera, beste liburutegi eta artxiboetan artean gordetzen ez ziren dokumentuak biltzeari ekin zion: panfletoak, foiletoak, kartelak, pegatinak, egutegiak... Eta arreta berezia eskaini zion erbestean eta klandestinitatean ateratzen zen guztiari.

Hala, Agirrek *artxibo* handi bat sortzeari ekin zion, Euskal Herriarekin erlazionatutako funtsekin, askotariko euskal funtsekin beti ere; eta Lazkaoko Beneditarren Monasterioan kokatu zuen. Materiala biltzeko boluntario *sarea* egituratu zuen bere inguruan –lagun eta ezagunekin, monasterioa utzi zuten gazteekin...–; makina bidaia egin zituen berak ere Euskal Herrian zehar. Bere lana ezaguna egiten hasi zen, eta denborarekin alderdi politikoetan, sindikatuetan eta beste hainbat erakundetan partaide izan zirenen *paperak* jasotzen hasi zen. Horrekin guztiarekin batera, lehen antolaketa eta deskribapen lanak egin zituen. Eta laster izan zituen ikertzaileak ate-joka.

Aitzindaria izan zen Agirre bere lanean, eta hasiera-hasieratik etorkizunera begira izan zuen ikuspegi zabalari esker, euskal ondare dokumentalaren zati garrantzitsu bat salbatzen lagundu zuela esan daiteke.



2. FUNDAZIOA

2007an Lazkaoko Beneditarrek lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Lazkaoko Udalarekin, eta horren arabera, eraikina altxatu zuten monasterioaren ondoan, Agirrek bildutako dokumentazioaren parte handi bat gordetzeko, *Lazkaoko Beneditarren Fondoa* deiturikoa gordetzeko, alegia. Eraikin berria 2010eko abenduan inauguratu zuten. Hori izan zen fundazioaren aurrekari zuzena.

Hilabete batzuk geroago, 2011ko apirilean, Lazkaoko Beneditarren Fundazioa sortu zen ofizialki, hiru kideekin: Lazkaoko Beneditarrak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Lazkaoko Udala. Juan Jose Agirre da fundazioaren zuzendaria, eta beneditarren priore Rufino Mujika, berriz, lehendakaria.

Bokazio faltekin beneditarren komunitatearen biziraupenerako suposatzen duten eragozpen handiak arriskuan jartzen zuen Agirrek egindako lana, eta horri aurre egiteko sortu zen LBF, Agirrek urtetan bildutako funtsei babes egokia emateko. Azken batean, fundazioaren helburua da *Lazkaoko Beneditarren Fondoa* gordetzea, osatu eta garatzea eta gizartearen esku jartzea. Hau da, Agirrek egindako lanari segida ematea, garai berrietara egokitzea, eta Euskal Herriko historia soziopolitiko eta kultural garaikidea ezagutzeko erreferente izatea.

3. FUNTSAK

LBF-k, *Lazkaoko Beneditarren fondoa* deiturikoa biltzen du bere baitan, hau da, Juan Jose Agirrek 70eko hamarkadatik hona bildutako aldizkariak, artxiboak, bilduma dokumentalak, kartelak eta pegatinak, guztiak ere, euskal gaien ingurukoak. Euskal Herriko historiaren azken 40 urteak ezagutzeko, ezinbestekoa.

Fundazioaren hemerrotekak 7.000tik gora titulu ditu, euskal gaien ingurukoak, XIX. mendetik gaur egunera bitartekoak. Nabarmentzekoak dira, besteak beste, 1970 eta 1980ko



hamarkadetako argitalpen politikoak, Francoren garaian erbestean eta klandestinitatean ateratakoak, tokian tokiko aldizkariak edo gerra zibilaren aurretik argitaratutakoak.

LBF-n 130etik gora bilduma dokumental daude, Agirrek urteen poderioz osatutakoak. Lau alor nagusitan sailka daitezke: bilduma politikoak –alderdi eta erakunde politikoak, hauteskondeak, presoak...–, lan munduarekin zerikusia dutenak –sindikatuak eta enpresak–, gizarte alorrekoak –apaizak, ekologistak, emakumeak...– eta kulturaren ingurukoak –euskera...–. Bertan oktabilak, panfletoak, prentsa ebakinak, komunikatuak, esku-egutegiak... aurki daitezke, baita barne dokumentazioa ere –aktak, informeak, memoriak, e.a.–. Aipatzekoak dira bereziki politikaren alorreko bildumak, Euskal Herriko historia politikoaren azken 40 urteak ikertzeko oso baliagarriak.

Hainbat pertsona eta erakundek emandako artxiboak ere gordetzen ditu LBF-k (40tik gora): artxibo pertsonalak –abokatuena, kazetariena, ikertzaileena, politikoenak...– eta mota ezberdinetako erakundeena –alderdi politikoenak, erakunde ekologistenak, presoen aldeko taldeenak... –. Euskal Herriko historia garaikidearen ispilu dira artxibo guztiak.

LBF-k 45.000 kartel inguru gordetzen ditu, 1970etik gaur egunera artekoak, guztiak euskal gaien ingurukoak. 1970eko hamarkadaren erdialdean hasi zen Agirre kartelak biltzen, aitzindaria izan zen lan horretan, eta horregatik, hainbat eta hainbat kartel ezin dira beste inon aurkitu, batez ere 70 eta 80ko hamarkadetan gai politikoen inguruan ateratakoak. Gainerakoan, fundazioan mota askotako kartelak daude: sindikalak, ekologistak, feministak, antimilitaristak, kulturalak... Era berean, 35.000 pegatina inguru ere gordetzen ditu fundazioak, 1970etik gaur egunera artekoak, mota eta gai askotarikoak.